
IRABAZI ITURRIAK

- Ikigai proiektuko irabazien iturri nagusiak sarrerren salmenten esker lortuko genituzke. Sarrera hauek gure webgune edo lokalaren bidez erosi ahalko lirateke, eta hauen prezioa artista eta eginkizunaren araberakoa izango litzateke. Hasiera batean, sarrerren prezioa 7-€ ingurukoa izango litzateke, beraz lokala betez gero (100 bat pertsona), eginkizun bakoitzeko 700-800 lortuko genituzke.
- Denbora aurrera joan ahala, eta gero eta prestigio handiagoa lortzen dugun aldi berean, sarrerren prezioa pixka bat igoko zen eta ikusleen pertsona kopurua ere igotzen saiatuko ginateke, eskariari aurre egiteko. Hala ere, hemendik lortutako diru guztia ez zen Ikigaiantzat izango, zeren eta sarrerren irabazien % bat artistentzat zuzenduta egongo litzatekeen.
- Horrekin batera, merchandising gune bat ere edukiko genukeen lokaleko zati batean. Gune horretan, aste horietan egongo diren artisten diskak, posterrak, kamisetak, liburuak, margolanak egongo liratekeen. Baina bertatik lorturiko dirua beraientzat izango litzateke. Denbora batera, fama edo prestigioa lortzen badugu, kuota bat jarriko genuke, ez oso altua, informazioa eta produktuak lokalean egoteko.
- Horretaz gain, gure bezeroak bazkidea izateko aukera ere izango dute. Pertsona hauek, hilabetero / urtero diru kantitate finko baten truke, abantaila desberdinak izango lituzketen, adibidez, sarreretan %25-eko deskontua. Hauek 2 aukera izango lukete Ikigaiako bazkidea bilakatzeko, hilabetero 10 ordaintzea edo urtero 120.